



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioan gure bezeroak eta haien ezaugarriak aztertzen ditugu. Hau egiteko, gure eta haien beharrak alderatuko ditugu, baita amankomunean ditugun ezaugarriak ere.

Gure bezeroak auto berri bat beharko duten jendea dira. Bestetik, ingurunearekiko arduratsu izan nahi dutenentzat bideratuta dago. Bezeroak, oro har, egoera ekonomiko egonkor batean dagoen jendea da. Mundu laboralean murgilduta dagoen jendeari zuzenduta dago gure proiektua, ekonomikoki egonkor dagoen jendeari, alegia. Bestalde, elektrikoak ez diren autoak epe luzera kostu ekonomiko handia suposatzen du, zergak, gasolina, etab. Horregatik, gure bezeroak dirua aurreztu nahi duten jendea izan beharko du, baita kotxe elektriko bat nahi dutenak.

Auto elektriko hauek, enpresei zuzendua egongo dira ere, dirua aurreztu nahi duten enpresak izango dira. Garraiorako autoak behar dituzten enpresek gure autoak erabiltzen badituzte, gasolinan aurreztuko dute, besteak beste. Horregatik, garraiobideak behar dituzten enpresek ere gure garraiobideak erabiliko dituzte. Halaber, mantenurako autoak dituzten enpresek ere gure autoa erabiltzeko aukera izango dute, eta beraiek ere dirua aurreztuko lukete modu honetara.

Gure produktuaren bezeroak aztertuz, konturatu gara merkatu masibo bati zutenduta dagoela, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileen talde handia baita.

Ezaugarri berdinak izango dituzten hainbat bezero daude: denek 18 urtetik gora izango dituzte, gidabaimen eguneratu bat beharrezkoa izango delako.

Horrez gain, argi dago ingurunearekiko konszienteak izan behar dutela, eta inguruan sortu den arazo larria konpontzeko gogoia izan behar dutela. Gainera, kontuan hartu beharrezkoa da gure ibilgailuen autonomia "infinitua" dela, hau da, erabiltzen den bitartean kargatzen da, eta ez du kargatzeko gelditu beharrik. Horregatik, gure bezeroen beste ezaugarrietako bat bidai motzak zein bidai luzeak egin nahi izatea da.

Autoa erosten duten bezeroez gain, beste bezero batzuk ere izango ditugu, izan ere, gure kotxeak alokairuan hartzeko aukera egongo da. Kotxeak alokatzen dituzten bezeroen ezaugarriak erosleen berdinak izango dira: naturaren kutsadura murrizteko nahia eta bidaiak gasolinarik bete gabe egiteko nahia.

Azkenik, gure bezeroek inbertsio bat egin nahi duten enpresak eta pertsonak izango dira. Hasieran autoaren kostua kudeatu beharko dute handik hilabete batzuetara dirua aurreztu ahal izateko.

Ondorioz, esan dezakegu gure bezeroen ezaugarri garrantzitsuena ingurunearekiko kontzientea izatea dela. Horrekin batera, ezinbestekoa da energia berriztagarriak erabiltzen dituen kotxe bat nahi izatea. Enpresei dagokionez, inbertsio bat egin nahi duten enpresak hartuko ditugu bezerotzat.